



Komunikazioa

Administrazioak ordezkoen araudia kudeatzen duen agindua berritzeko aurkeztu digun lanerako abiapuntu proposamenaren inguruan zera esan nahi dugu:

- Ordezkoen zerrenda guztiz irauli dezakeen proposamena planteatzen du, EPEa gainditu eta lanpostua lortu ez dutenei puntuak emanez.

EPE gaindituz gero 5etik 6,49ra bitarteko oposizio nota = 40 puntu
6,50tik 7,99 bitarteko oposizio nota = 50 puntu
8tik 10 bitarteko oposizio nota = 60 puntu

- **steilas** sindikatuak honen aurrean argi eta garbi adierazten dio administrazioari behin eta berriz: Administrazioaren kudeaketa negargarriak interinitate poltsa izugarri hauek sortu dituela, plaza kopuru eskaseko EPE hauek ez dutela plantillak handitzeko balio, departamentuaren burua zuritzeko besterik ez.

steilasek ordezkoen kudeaketaren inguruan, urteetan, behin eta berriz, langileen eskubideak eta aukera berdintasuna oinarri izanik, bestelako neurriak proposatu dizkio administrazioari (**zerrendak urtero irekitzea, egonkortasuna berreskuratzea- eta ez gaur egungo finkapen sistema -tajuzko EPE-ak eskeintzea...**) eta berriro ere mahai gainean jarriko dizkio.

Langile eta ikastetxeekiko erantzunkizunean badu zer hobetu administrazioak: azkar baino lehen, lan hitzarmenean jasota dauden ratioak bete ditzala, eta ordezkapenak lehen egunetik bete langileak ikastetxeetara bidaliz, ikastetxeei lan zama gehigarria kenduz, lana nahi eta behar duten ordezkoei emanez eta beharrak asetzeko beharrezkoak diren giza-baliabideak jarritz.

Murrizketek eta prekarietateak ez garamatzate inora. Ikastetxe publikoen kalitatea hobetzeko modu bakarra langileon lan baldintza duinak bermatzea da, egonkortasuna ziurtatzea (ez bakarrik EPEaren bidez), ratioak jaistea, eta formakuntza murriztu beharrean, indartzea.

Egunez egun, langileekiko mespretxuzko jarrera begi bistakoa da. Langilegoaren lan baldintza duinetan oinarritutako Euskal Eskola Publikoaren alde lanean jarraituko dugu, eta Administrazioak neurri hauek erabiltzen dituen bezala, **steilas aurrez aurre izango gaitu.**

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus